Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Juanita Isasti Otamendi Markos

Getaria, Gipuzkoa (1918)



Aurkibidea

Biografia



Getariako Elkano kalean jaio, eta bertan bizi izan da beti. Aitarengandik jaso zuen ezizena, Juanita "Markos". Hamazazpi urterekin Carmen "inglesa" zenaren dendan hasi zen lanean, eta jabea hil ondoren berak hartu zuen denda. 70 urtez egin du lan denda horretan, janaria, arropak eta denetarik saltzen.

Zintak

GET-016

- **Proiektua**: Getaria: euskara eta itsasoa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-11-16
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Goizean lanera joan aurretik hondartzara bainua hartzera eta mezara

- **Erref**: GET-016/002
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Elkano kaleko etxe txiki batean jaio zen. 17 urte zituela Karmen "Inglesaren" dendara joan zen lanera eta 70 urte pasatu omen ditu bertan. Goizeko seietan hondartzan bainua hartu, sei eta erdietako mezara joan eta zazpiak aldean denda irekitzen zuen. Herriko jendeak lan egin behar izaten zuen eta goizean goiz joaten zen hondartzara. Egunean zehar, ostera, dirudunak, txaletetakoak joaten ziren.

Transkripzioa
- Eta, bertan jaiotakua?
- Bertan jaidxo ta bertan bizi bizi guztidxan.
- Getaian.
- Getaidxan.
- Hemen, etxian?
- Ez, hor uan kale hartan, zu ez ziñan pasako ta, itxe txiki bat, han jaidxo nitzan. Ta uain dana bota ta berridxa in deu, habentzako, habentzako. Elkano kalian, bai, hogeita bostian. Ta ni honea etorri nitzan, hemen zeon "Karmen Inglesa" esaten zioen bat dendakin. Ta esan zion, bea ondoezik eta, gure aitai: “Markos, alaba bat bialdu bihar diazu /biazu/”, ta ni bialdu niñun, hamazazpi urtekin. Asiske, eon nax…
- Dendan laguntzea.
- Bai, beai laguntzea, lanak itea ta badakizu, lehengo ohiturak. Eta, “setenta años he pasao de pie en el mostrador”. Castellanoz ta euskeraz ta dana ingo dizut (ingo'xut)…
- Oso ondo.
- E?
- Eta hirurogeta hamar urte bertan, dendan.
- Dendan, jai ta aste, e?
- Bai.
- Ez zeon, ez zeon bakaziyoik eta…
- Ez. Ta geo nazkan…
- … ez jaiyik, eta…
- Ez. Jaitan ireki iten zan denda. […] señorak bezela mezeta, ta nik dendan

eon behar izaten nuan. Ez al dakizu? Hamarretako mezeta.
- (A1) Ta gero?
- Geo ni, mezeta ni’re hamaiketan… Oan… Leheno hamarretan, ta leheno sei t’erditan. Ta seiretan hemen aurreko ni baiño askozez zaharro zan batekin hondartza, baiñua hartzea [bisera] batekin. Ta geo, sei t’erditako mezeta.
- Kontaidazu hori. Nola…
- Bai, ba!
- Goizeko seiretan…
- Goizeko seitan jaiki… bai tontuena zala, e? Ohian eon besteik eta… Jaiki, hondartza jun, baiñua hartu, sekatu ta mezeta sei t’erditan. Ta geo zazpitako, zazpik ta laurden, zazpi t’erditan denda ireki.
- Eta goizeko seiretan baiñatzea, e?
- Baiñatzea, udaan. Jun in behar da, e? Ohian bero-bero eon besteik ez, ta…
- Eta ordun normala izaten zan emakumiak hondartza jun eta baiñatzia?
- Normala ez. Normala ez zalako juten giñan goizian, lana in behar zan ta!
- (A1) Baiña gero egunez iñor ez al zan juten?
- Bai, txaletekuak eta horrela.
- Bai, baiña bertako, Getaiko jendia ta?
- Getaiko ta bai, jungo zan, baiña gitxi, gitxi…
- (A1) “La gente de pasta”.
- “La gente de pasta”, bai. Horrela nunan. Ta guk berez nola dendan lana in behar giñun, juten ez.
- Eta, trajebañuakin ta?
- Traje de bañuak ahal zala, ahal zan bezela.
- Bazeon?
- Ta burla iten zien nei. Ta nik elegante juten nitzala uste!

2. Ezkontzako soinekoarekin egindako bainujantzia

- **Erref**: GET-016/003
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Nolako bainujantzia zuen. Concha Ortiz de Artiñano izeneko bilbotarrak ezkontzako soinekoa kapa batekin egin zuen eta gero berari eman zion soinekoa. Berak bainujantzia egin zuen harekin.

Transkripzioa
-Guk, berez, nola dendan lana in ber giñun, jun ez.
-Eta traje de bañuak eta?
-Traje de bañuak eta, ahal zan bezela.
-Bazeon?
-Ta burla iten zien nei, ta nik elegante juten nitzala uste.
-Ta nolakua zan ba?
-Esango ñat: nik egin nian /inian/ traje de baño Kontxa Ortiz de Artiñano. Badakin zei dan e? Kontxa Ortiz de Artiñano medikuak ere badia. Orduan bilbaotarra zan, ta hemengo Karmen Inglesen illobakin ezkondu zan. Ta haren aitak eta hitunan oso aberatsak Bilbon, “vivian en Campo Volantín”.

Entenditzen? Ta hark zitxakanan kapa haundi bat, leheno eramaten zituan bezela. Ta orduan, gerra denboran ezkontzeko ta zeik ez, telik ez nunan / enunan/, ta hark in ziñan kapa earki trajia ezkontzeko. Ta geo eman zitxanan nei.
-Trajia?
-Trajia. Ta nik in niñan traje de baño. Honela ta geo tira goitik behera.
-Ezkontzeko?
-Ez! Traje de baño in niñan.
-Ya, ya, ya, ya.
-Ta gure umiak eta, nik elegante juten nitzala uste niñan, ta gure umiak gero hazi zianian lotsatu iten hitunan ez al dakin ze izaten dan. Baño baxkiñat oaindik hor zaben bi traje de baño, Benidorma ta eramate nitunak geo.
-Lodi-lodiyak izango zian.
-Haiek bai baño oainguak ez, oainguak modernuak, bueno ez, oaingo modeno habek baño denboa onokuak. Mari Karmenek ekarrita Zarauztik.

3. Karmen "Inglesa" gaitzizenaren jatorria

- **Erref**: GET-016/004
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:06:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Karmen "Inglesa" gaitzizena nondik zetorren. Karmenen aita kapitaina zen eta Ingalaterrara bidai asko egiten zituen. Ama, berriz, Mundakakoa zen, baina bere familia Karlismo garaian Ingalaterrara joan zen, eta bertan ezagutu zuten elkar. Gurasoak hiltzean Karmenen ama eta izeba Euskal Herrira etorri ziren berriz. Berak 28 urte zituela hil zen Karmen eta bera geratu zen dendan.

4. Elkano kalea dendaz beteta

- **Erref**: GET-016/006
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:08:22. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Denetarik saltzen zuen dendan: janaria eta gehienbat arropa eta oinetakoak. Kale hori dendaz beteta zegoen, baina denak ondo konpontzen ziren elkarrekin. Nagusiarentzat lan egiten zuenean jaietan ere dendan egon behar izaten zen eta horregatik ez omen du dantzan ikasi.

Transkripzioa
- Eta dendan, zer saltzen zan dendan?
- Danetik.
- Danetik?
- Nik danetik saldu det.
- Janaia, ta erropa’re bai?

- Erropa’re bai. Erropa zakan hark gehidxena. Ta geo hasi giñan, badakizu, beti gehidxo, beti gehidxo... erropa’re bai, ta... zapatillak eta zapatak, eta hoidxek. Pilla ear bat badao oandikan.
- (A2) De todo, de todo.
- (A1) De todo, kuleruak eta, de todo.
- “De todo he vendido. De todo he vendido pa sacar a esta gente a adelante”.
- Eta beste dendarik bazan Getaian?
- Bai, kale hori dana dendak, dana denda zan. Aurrian denda, albuan denda, dana denda. Horreaitik esaten dizut /esatentxut/, ba, danok alkarren zea. Hau hara juten al zan? Pues hara. Bestia honea etortzen al zan? Oan berriz dakazu todo... Ez al dakizu?
- Lehen elkartasuna ta gehio zan?
- Alkartasuna gehidxo leheno, bai.
- Eta esan dezu jaiyik eta...
- Ez! Jaidxan’e nik, desde luego, nere kontura jarri nitzanian, nik arratsaldian gaztia, ta itxi iten nuan. Gozian ireki. Ta Karmen zeonian berriz, hark bea eoten zan hor kuadrilla, bere lagunakin ta. Kaiako jabiak eta jende pixkat dexentiak, onakin, hor, kontuk esaten dendan. Ta nik etorri behar izaten nuan, haidxek itxea juten hitunan goizo, ta nik itxea zortzitako etorri in behar. [Horregatik] dantzan ta ez zekiñat.
- (A1) Ikasi ez.
- Ikasi ez ta afizidxua’re ez, ta. Geo gerra’re sortu zan ta, “todo, todo conjunto”.
- Gazte ziñala, justo hor... hemezortzi urte...
- Bai, ba. Hemezortzikin ta...
- Dantza ikasteko...
- Ikasteko garaidxan “no había música”. Ez nunan... gauza horrela den. Ta geo afizidxua’re ez, ta... Ta geo ba al dakizu ze izaten dan? Geo honea’re etorri in behar, ta...
- (A2) Sortu hunan geo, e, musika...
- Bai, zea hori, gramofonua jartzen ziñenan, baiño orduan’e nik... badakin, hura bakarrik eta nik eon in behar. Kontu, lehengo kontu zaharrak nola ai naizen esaten! Milla dazkit.

5. Umetako jolasak: "kixkixean", "aponietan", "apuila-apuilaka"

- **Erref**: GET-016/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan, kanikatan eta intxaurrekin "kixkixean" jolasten zuten. Berak arra txikia omen zuen, eta ezin irabazi. Xakaponekin "aponietan" ere jolasten zuten. Mutilak "potorro-potorroka" ibiltzen ziren, poteak botaz jolasten. "Apuila-apuilaka" ere (ezkutaketan) aritzen ziren. Honen inguruko anekdota.

6. Umetako jolasak; mutilek makilak lurrean sartzen egiten zuten jolasa

- **Erref**: GET-016/009
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Sokasaltoan ere aritzen ziren. "Txutxupeka" eta "apuila-apuilaka" gauza bera da. Mutilen jolasa: lurrean zuloa egin, txiza egin eta bertara egurrak bota, zeinek makila hurbilago sartu. Plazan edo frontoian jolasten zuten.

7. Gabonetan aza eta konpota

- **Erref**: GET-016/010
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:18:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Gabonetan aza, bakailaoa eta konpota jaten zuten. Lehen xanpainik ez zen izaten. Behin bidaiari batek xanpaina oparitu zieten eta edateko penaz egon ziren. Turroia egoten zen, baina gutxi.

8. Eskolara joan beharrean ahizpa gazteagoa zaintzen

- **Erref**: GET-016/011
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:18:26. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Eskolara gutxi joan zen ahizpa gazteagoa zaintzen geratzen zelako. Eskola parean josten aritzen zen lehengusu bat zuten eta eskolatik irtendakoan hari laguntzen ibiltzen zen.

9. Eskolan mutilak eta neskak banatuta

- **Erref**: GET-016/012
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:19:58. **Bukatu**: 00:21:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskola udaletxe ondoan zegoen. Beheko solairuan mutilak eta goian neskak egoten ziren. Irakasleak: Doña Paz eta Don Fernando. Euskararen inguruko kontuak; ba omen ziren euskara ikasi nahi ez zuten karabineroak.

10. Elkano kalea dendaz beteta

- **Erref**: GET-016/015
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:27:12. **Bukatu**: 00:29:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Elkano kalea nolakoa zen. Atean-atean denda edo taberna omen zegoen. Elkarrekin bat egin eta prezioak edo erabakiak elkarrekin hartzen zituzten. Berak gutxi gastatu izan omen du beti, eta horregatik irabazten zuen dirua.

Transkripzioa
- Eta beti, bizi guztian hemen Elkano kalian eta bizi izanda, nolakua zan Elkano kalia lehen?
- Oan baiño zaharro. Oan danak, etxe danak berrituta dabez, baiño. Tabernak'e bazian, ta.
- Tabernak eta dendak eta [...] asko [...]?
- Bai, dana, dana, atian-atian, atian-atian. Lehen bajuak estimazidxua zukaen, baiño uan ez dukae.
- Ta lehen baju bakoitzian...
- Baju bakoitzian denda, o taberna, o... bai. Aurrian, bestia, bestia... Plaza puntatik hasita.
- (A1) Ana Marin denda, [...]'re bai...
- Bai... [Maritxanonekua, Kauanekua], Txomiñanekua...
- (A1) Bat, bi, hiru, lau, bost... nik sei denda ezautu ditut hamen.
- Bai, ba. Ta in dian kontu... Terexa [...], Xixili...
- (A1) Poito.
- Poitonekua, ni, Largoninian'e jarri ziñenan...
- (A1) Largonenian'e bai.
- Haor bost...
- (A1) Izeko Beltxora...
- Beltxora...
- (A1) Ana Mari...
- Estankua're tartian...
- (A1) Estankua, Ana Mari're bai...
- Joxepa [Etxabarri], Elkano txikidxa hemen aurrian...
- (A1) Zea, Maria Teresa...
- Panaderua [Kirinona], bai...
- (A1) Hor zortzi bat bai.
- Haor zortzi bat, kale honetan, aber, kale honetan. Horregatik esaten dizut / esaten txut, ba, ez dakit, ba. Ta geo iten giñun, noizik eta behin, "gauzak

idxo in [dabe] ta, gaur reunidxua ingo diñau, ta” , “honela jarriko al deu?” O este… “perro haundi bat idxo den ta, perra haundi bat idxoko al deu?” Ta… danok alkarrekin, ta uan ez dao hori.
- (A1) Guk tabernak iten deuna.
- Bai, ba. Zuek tabernak alkar hartzen dezue (hartzen txue), dendaridxak ez, ordia. Dendaridxak gitxidxo, gitxidxo. Dendaridxak iten diñu… Ba al dakin guk ze iten deun? Aurreatu iten diñau. “No gastábamos y ahorrábamos lo que ganábamos”. Entenditzen al diazue? Ez giñun gastatzen, ta! Nik ez nuan gastatzen! Ta ni bezela, umiak jantzi ta jan, ta goseik ez deu pasa guk behiñ’e. Gerra denboran’e nik ez niñan goseik pasa. Ogidxa ekartzen zigun Zarauztik. Hiru, orduan hiru panadei bakarrik giñan saltzen. Oan, ateik atea iten zan, ta guk bakarrik saltzen giñun. Ta [Porrostuanekuak] eta Txomiñanekua. Geo hasi nunan Eulali. Ta iten gitxonan, ogidxakin, badakin, atea iten nunan orduan’e. Perro txikidxa zanagatik, atea iten nunan. “Pero, ganábamos” ta “el secreto es el no gastar. No hay otra cosa”. Oi! Ez al da hala, ba?
- Hala da, bai.
- Oi! Hik ze iten din, ba? Bi irabazi ta hiru gastatzen bahitun, “hura zorretan zian!”. Txanpaiñan hura’re ez al dakin? Nik eraman nuan orduan. “Pu!”, “pu!” in ta, “pu!” in ta erango nikin, “pu!” in ta erango niñan. Ta gure aita etorri nunan ta “pu”-ik ez zeak, txanpaiñak.
- (A1) “Pasao, caducao”.

11. San Anton mendian patata ereiten zen

- **Erref**: GET-016/018
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:32:18. **Bukatu**: 00:34:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
San Anton mendian patata egiten zen. Gerora sekretario batek kendu egin zuen hori. Kaleko jendeak terreno puska bat (udalarena?) izaten zuen patata ereiteko. Aita hil ostean ama [Santurun] baserrira joaten zen lanera eta terreno puska bat eman zioten patata ereiteko.

12. Inguruko baserrietatik jendea lanera Getariara

- **Erref**: GET-016/019
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:34:00. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Ama Aizarnako [Goiabide] baserrikoa zen. Familia osoa etorri zen Getariako baserri batera eta ama neskame lanetan aritu zen "Marzianonean". Inguruko herri eta baserrietatik neska asko etortzen ziren neskame edo antxoa-lanera.

13. Goizeko ordu txikietan despeskara

- **Erref**: GET-016/020
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:39:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Txiki-txikitatik ibili izan zen antxoa-lanean. Mahaira ez zen iristen eta harri bat jartzen zuen oinen azpian. Goizeko ordu txikiak izan arren, baporea etortzen zenean antxoarekin despiskara (arrainak saretik libratzera) joan behar izaten zuten. Hasieran despiska txalupan egiten zen, baina gerora moilako arranplan, denak ilaran jarrita. Despeskako arraina ("mallakoa") gehiago ordaintzen zen.

Transkripzioa
- Zu ibilitakua zea antxoa lanian ta?
- Bai. Ni antxua lanian, bai, txiki-txikitatik, harridxan jarri ta burua kentzen. Mahaira ailleatu ezinda, harridxa jarri, ta...
- Harriya jarri iyotzeko?
- Hankian, azpidxan ta. Bai, bai!
- (A2) Baiño hi gutxiyo […].
- Ez, nik’e in niñan! Hi haiz geo jaidxua…
- (A2) Esaten diñat…
- Hi ez haiz... ez! Eon hai ixilik! Hi zazpi urte ni baiño gazteo haix. Ta zazpi urtian badakin, ni hamarrekin hasi banitzan’e, zortzikin hasi banitzan’e, hi […] akordatzen. Ta hik nahi den esan ni honea etorri nitzala geo Karmenena denda ta dendan eoten nitzala. Ta habek ibiltzen hitunan, ba, despeskan. Ta ni’re despeskan jun izanda natxion. Gitxi, zuek gehidxo. Ni gitxi. Hemen etorri ta nik zazpitako denda ireki behar niñan, ta. Poz ederra’re ez […], esnatu ta, “ze ordu ete da?”, ta… Askotan, esateako, goizeko ordu bitan igual txalupa etorri zala ta despeska, antxuai burua, zea, kentzea, saretikan ateatzea. Despeska esaten zan, motor txikidxai ta. “Oi, zazpirak! Ez zianen deitu gaur itsasoa […]”, gaztetasunian, lo iña, behintzat.
- Bestela ze pasatzen zian?
- Jun in bihar? Zeara…
- Baporeta?
- Bai.
- (A1) Despeska.
- Baporetarik etorri ta…
- Bai, deitu. Moillan hasi zian geo sariak ateatzen. Ta moillan zanian, juten gitxonan. Bestela mariatu iten.
- (A2) Aitu, baiño hik gitxi in den hura, e?
- Nik gitxi in diñat, baiño in niñan. Zuek asko. Bai, ba! Zuek asko.
- (A1) “Otra época” zuk ama.
- Bai, ba, “otra época”. Ni orduan hemen nitxonan, ta. Ni’re hemendik arratsaldian jostea igual juten nitxonan. Goizian in ta geo arratsaldian jostea. Ta geo fileteta jun nitxonan, pixkat, filete itea’re. Ta geo Karmen’e gaixotu nunan, ta… ezin jun. Ta geo nere kontura jarri nitzanian berriz’e gitxio, ta, ez al dakizu, ba?
- (A2) En fin, en fin… Guk’e in deu nahikua.

- Eta despeska moillan izaten zan? O… motor txikiyan?
- Aurrena iten zuen motor txikidxan bertan.
- Bertan.
- Baiño geo hasi zian, han arranplak izaten zian, ba? Moillan, bajadakin, arranpla esaten zakoe. Ta han sariak atea ta han geo filan-filan-filan jarri eta otarra jarri, ta han buruak hara. Antxua hara. Ta hutsa hara. Antxua geo idxo, ta horrela. Ta orduan jende asko juten nunan porke mariatzen zianak ez zitxakaen han juteik baporian, ta txalupian'e gitxi jendia kabitzen, motorretan'e. Motor txiki hoidxetan zenbat jende kabituko nunan, ba?
- Ta moillan bai.
- Moillan bai, filan, ta.
- Bertan, lurrian jarrita, o?
- Ez, tente, tente.
- (A2) Ez, ez, ez. Tente jarri eta guk bota. Bueno, atea…
- Atea…
- Tente, tente. Oan hainbeste kopla, kopla, ta orduan ardo goxua ta horrela partitzen zuen. Ta danak ardo goxo hori erateko zai. Ta in zazu kontu! Antxuei burua kendu, dana eskamez beteta. Lehenguan eon nitxonan dendan esaten. Danak baso hartatikan ta zea eraten, ardo goxua. Gure umiak eramango ziyoen [eralontziya], galdezka […]. Jesus!
- Eta hori gabian izaten zan, ez? Gabaz.
- Ez, goizaldea.
- Goizaldian.
- Goizaldea… Arratsaldian, goizaldea. Ordu bidxak o, bostak o…
- (A2) Eske, goizo ertetzen zuen, e!
- Bai.
- Bai.
- Oain ez liake, ez litzake iñor jungo.
- Goizeko hirutan ta lautan ta …
- Honbre! Parranda bai, baiño! Ezta pentsatu're!
- Eta apreziatua zan despeskako antxoa hori?
- Bai! Gehidxo paatzen zuen, e!
- Gehio?
- Bai! Arrai hori gehidxo paatzen zuen. Nik ez dakit zergatik zan maillako arraidxa, "malla", maillako arraidxa esaten zan, garestidxo zan […].
- (A2) Bai. Hobeto etortzen zan, ta hobeto jarrita ta…
- Ondo paatzen ziñenan, ondo paatzen ziñenan.

14. Inguruko herrietako euskarak doinu desberdina

- **Erref**: GET-016/021
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:39:30. **Bukatu**: 00:41:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
<p>Zarauztarrek eta zumaiarrek desberdin hitz egiten omen dute, eta erraz antzematen omen da nongoak diren. Getariako baserritar eta kaletarren artean ez dute alderik somatzen. Beraiek beti hika egiteko ohitura izan dute.

Nagusiagoei hika egitea errespetu falta. Lehen berorika ere egiten zen, baina Juanitak ez zuen erabiltzen. Senar-emazteek hika egitea ez zaio gustatzen.</p>

Transkripzioa

- Eta, ari gea jasotzen’e bai euskera kontuak eta. Eta euskera, Getaiko euskera, ta inguruko herrietakoa ta, diferentia al da?
- Beno, guk euskera, beti euskeraz in izan deu. Zarautzen eta hoidxetan gehidxo iten da.
- (A1) Euskeraz gehio hamen.
- Bai, ba! Hemen gehidxo. Han castillanoz gehidxo.
- (A) Bai. Geo, desberdiña da.
- Desberdiña, bai. Boza o, boza o, ezaguna izaten da. Zumaiarrak’e bai! “Zuek zumaiarrak zeate”, ta. “Zuek bizkaitarrak zeate”, ta.
- (A2) Baiño getaiarrai seituan.
- Seituan, bai.
- Eta zuk igartzen dezu zein dan zarauztarra ta zein zumaiar bat, eta…?
- Bai. Hau eibartarra omen den, baina ez zekan eibartarren bozik.
- (A2) Zu Eibarkua al zea?
- Bai.
- (A1) Ta azpeitiarrak’e asko…
- Bai. Azpeitiarrak eta azkoitiarrak eta hoidxek boza diferentia due.
- (A1) Baiña guk beste zea bat dakau.
- Beste… gatza bat.
- Eta esan diate Getaian bertan kalekuak eta baserritarrak diferente hitz eiten duela.
- Bai? Iruitzen al zazu, e?
- Ez dakit! Jendiak eta esan dit.
- Ez. Basarritarrak getaiarrak… boza diferentia? Ez! Ke ba! Ke ba! Ez zat, ez zat iruitzen.
- (A1) Doiñu berdiña.
- Doiñu berdiña, bai.
- Eta euskera, zuen artian eta, beti hika?
- Bai! Nik hika gehidxo ohitura det horrela, ba, habei, ta oan gure umiai’ta zuka iten [zuat] eta zaharrei berriz, Aitziberrei ta hoidxei’re zuka iten al diot? Ez zekiñat, bai! Zuka ingo zionat, bai.
- (A1) Nei hika iten diazu.
- Hika iten diñat hiri, bai.
- (A1) Nik zuri zuka.
- Bai! Nola ingo dian, ba, hika? Ez diñat utziko, gaiñea! Ez diñat utziko! Lehen beorika ta zan, e! Nik behiñ’e ez berorika zeai, amai ta hoidxei. Ez, zuka.
- (A1) Nik umiai zuka, baita’re. Nik nere umiai zuka.
- Gure umiai zuka iten zionat.
- (A1) Baiña been artian hika.
- Been artian hika, bai.
- Baiña lehen lagunen artian eta dana hika.
- Hika’re bai, bai, hika asko.
- Bai mutillekin, bai neskekin?
- Bai.
- Berdin?
- Uain, ez zatena gustatzen da senar-emaztiak alkarrei hika. Horrek inpresidxo haundidxa iten dit. [Hitatoka, hitatoka]. Dendan’e etorri ta, “Aizak, hi!”… gizonai nola leike hika, e? “No me gusta”.
- (A1) Ta gizonak andriai.
- Bai. Ez zaiten gustatzen.

15. Bisigu-partiketa; bakailaoa pobreen janaria

- **Erref**: GET-016/023
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:47:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Bisigu asko zegoen lehenago. Hasiera batean gabonetan eta urte berritan bakarrik partitzen zen, baina gerora gehiagotan. Partiketa kontuak nola izaten ziren: arrain klase desberdinak pila berdinetan jarri eta zozketatu egiten ziren. Bakailaoa lehenago pobreen janaria izaten zen.

16. Angulen prezioaren aldaketa; bizimoduaren aldaketa

- **Erref**: GET-016/026
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:50:38. **Bukatu**: 00:52:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:
Angularik ez zen harrapatzen inguruetan, baina jan bai. Lehen urtero jaten omen zuen angula, baina gaur egun hori ordaindu baino nahiago duela afaldu gabe oheratu dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com